

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LACERVILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onespena ematea kontzejuko landa bideen erabilera, kontserbazioa eta zaintza arautzen dituen ordenantzari

Kontzeju honek, 2019ko azaroaren 12ko bilkuran, kontzejuko landa bideen erabilera, kontserbazioa eta zaintza arautzen dituen ordenantza onesteko espedienteari hasierako onespena eman zion. Espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onesten da.

Horregatik, aldaketa oso-osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin, Toki Ogasunak Arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Kontzejuko landa bideen erabilera, kontserbazioa eta zaintza arautzen dituen ordenantza

Zioen adierazpena

Kontzeju honek, 2019ko azaroaren 12ko bilkuran, kontzejuko landa bideen erabilera, kontserbazioa eta zaintza arautzen dituen ordenantza onesteko espedientea onetsi zuen. Eta adostu zuen Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, kontserbatu eta zaintzeko otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan jasotakoa ez ezik, areketan sortutako kalteak ere jasotzea, zeinak eragin dituen finkaren laborariak hartu beharko baititu bere gain, erabilera txarraren edo fenomeno meteorologikoen ondorio diren gorabehera.

Areketan gerta litezkeen kalte guztiak hartuko dira kontuan, bai Landa Bideen Erregistroan inskribatutako bideetan gerta litezkeenak, bai inskribatuta ez dauden bideetakoak ere.

1. artikulua

Ordenantza honen xedea da Lacervillako landa bideen erabilera, kontserbazioa eta zaintza arautuko dituzten xedapenak ezartzea.

2. artikulua

Landa bideak dira otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauak jasotzen dituenak; alegia: herriguneak eta errepedeak landa finkekin, ibaiekin, basoekin, mendiekin, herri lurrekin eta larreekin lotzen dituzten titulartasun publikoko komunikazio bideak, batez ere nekazaritza ustiatuegien edo finken zerbitzurako erabiltzen direnak.

Landa bidetzat joko dira bai helburu horretarako berariaz eraiki direnak, bai berariaz nekazaritzarako eraiki ez arren batez ere horretarako erabiltzen den beste edozein bide.

3. artikulua. Lurralde historikoaren eskumenak

Arabako Foru Aldundiari dagokio Landa Bideen Erregistroan inskribatutako bideen gaineko eginkizun teknikoak, zaintza eginkizunak eta zehapen eginkizunak betetzea, bai eta bere jabari publikoko bideen gainean dagozkion eginkizunak betetzea ere.

4. artikulua. Toki erakunde titularren eskumenak

1. Lacervillako Administrazio Batzarrak landa bideen gaineko funtzio guztiak beteko ditu, baita eginkizun teknikoak, zaintza eginkizunak eta zehapen eginkizunak ere, Landa Bideen Erregistroan inskribatuta ez dauden eta bere jabari titulartasunekoak diren bideen gainean, 6/1995 Foru Arauan, hura garatzen duten xedapenetan eta ordenantza eta aurrekontu hauetan xedatutakoaren arabera.

2. Lacervillako Administrazio Batzarrak zaintza eta zehapen eginkizunak beteko ditu. Titularrak bere ardurapeko eragin eremuan bidea eta areka behar bezala kontserbatu ez dituela egiaztatzen denean gauzatu beharko ditu eginkizun horiek administrazio batzarrak.

5. artikulua. Administrazioen arteko harremanak

Otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauak xedatzen duenaren arabera, Foru Aldundiak eta Lacervillako Administrazio Batzarrak, bideen arloan, elkarren arteko harremanak egokituko dituzte, elkar informatzeko, lankidetzan aritzeko, koordinatzeko eta dagozkien eskumen eremuak errespetatzeko, eta, era horretan, bide sarearen jarraitutasuna eta funtzionaltasuna bermatzeko.

6. artikulua. Bide publikoen eremuak mugatzea

Otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan xedatutakoaren ondorioetarako, honako eremu hauek ezartzen dira Bideen Erregistroan inskribatutako Arabako landa bideetan:

- jabari publikoa.
- zortasuna.
- atxikipena.

Gainera, horien gainetik, eraikuntzaren muga lerroa dago.

7. artikulua. Jabari publikoko eremua

1. Jabari publikokoak dira bideek eta haien elementu funtzionalek arekaren, lubetaren edo lur erauzketaren kanpoko bi ertzen artean okupatzen dituzten lurak.

Jabari publikokoa izango da egituren euskarriek hartzen duten lurra.

8. artikulua. Zortasun eremua

1. Landa bideen zortasun eremua bi lur zerrendek osatuko dute bideen bi aldeetan. Lur zerrenda horiek barrualdetik jabari publikoko eremuak mugatuko ditu, eta kanpotik, berriz, lur berdinketaren kanpoko ertzetatik metro eta erdiko distantziara dauden bi puntu lerro distantziakidek.

2. Zortasun eremuan ezin izango da inolako obrarik egin, ez okupazio iraunkorrik, ez eta itxiturarik ere, baldin eta fabrika obra badute eta/edo metro eta erdiko altuera gainditzen badute, eta ezin izango da laborantza jardueraz bestelako jarduerarik egin.

Fabrikako obrarik ez edukitzeagatik eta/edo metro eta erdiko altuera ez gainditzeagatik baimendutako itxiturak jabari publikoko eremutik gutxienez metro erdira ezarri beharko dira.

3. Bideen Erregistroan inskribatutako bideetan, Foru Aldundiko organo eskudunaren alde aurreko baimena beharko da hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera finken sarbideak eraiki edo konpontzeko. Bide horietan, Foru Aldundiko organo eskudunak zortasun eremua erabiltzeko baimena eman ahal izango du, interes orokorreko arrazoiengatik edo bidearen zerbitzu hobekak hala eskatzen duenean.

4. Zortasun eremua okupatzeagatik eta hura erabiltzeagatik sortutako kalte-galerengatik kalte-ordainak eman ahal izango dira.

9. artikulua. Eragin eremua

1. Bideen eragin eremua bi lur zerrendek osatuko dute bideen bi aldeetan. Lur zerrenda horiek barrualdetik jabari publikoko eremuak mugatuko ditu, eta kanpotik, berriz, lur berdinketaren kanpoko ertzetatik sei metroko distantziara dauden bi puntu lerro distantziakidek.

2. Eragin eremuan lehendik dauden eraikin eta instalazioetan edozein motatako obrak egiteko eta horien erabilera edo xedea aldatzeko, Lacervillako Administrazio Batzarraren baimena beharko da; dena dela, eskumen konkurrenteak dituzten beste batzuk ere behar izan daitezke. Bideen Erregistroan inskribatutako bideetan, gainera, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aldeko txostena beharko da alde zurretik.

Eragin eremuan ezin izango da eraikin berririk egin.

6 eta 8 metro bitartean eraikin berriak baimendu ahal izango dira, aurrez Lacervillako Administrazio Batzarrak baimena emanda, eta erregistroan inskribatutako bideen kasuan, Nekazaritza Sailaren aldeko txostena beharko da aldeaz aurretik.

Nolanahi ere, fabrika obra duten edo metro eta erdiko altuera gainditzen duten itxiturak hirigintza araudiak ezartzen duen distantziara kokatu beharko dira.

3. Baimena ukatzeko, oinarritzat hartuko da bidea zabaltzeko edo aldatzeko planen edo proiektuen aurreikuspena, gehienez ere 4 urtekoa, edo nekazaritzakoak ez diren xedeetarako erabiltzeko asmoa.

10. artikulua. Eraikuntza lerroa

1. Landa bideen bi aldeetan eraikitzeko muga lerroa ezartzen da. Lerro horretatik bidera arte, debekatuta dago eraikuntza, berreraikuntza edo handitze mota oro, dauden eraikuntzak kontserbatzeko eta mantentzeko ezinbestekoak direnak izan ezik.

Eraikitzeko muga lerroa jabari publikoko eremuaren kanpoko ertzetik 8 metrora dago, aipatutako ertzetik aurrera horizontalean eta bidearen ardatzarekiko perpendikularrean neurtuta.

2. Oro har, herriguneetatik osorik edo zati batean igarotzen diren bideetan, eraikitzeko muga lerroa aurreko artikuluan ezarritakoa baino distantzia txikiagoan ezarri ahal du Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, baldin eta dagokion hirigintza plangintzak horretarako aukera ematen badu.

3. Multzokatutako eraikuntza eremuan lehendik dauden eraikinek ezarritako lerrokadura errespetatu behar dute hiri lurzorua zeharkatzen duten landa bideek. Eraikuntza eremu sakabanutan, eraikuntzek edo instalazioek 3 metroko gutxienezko distantzia izan behar dute, lehenengo paragrafoan aurreikusitako moduan neurtuta.

11. artikulua. Desjabetzea

Zortasun eremuan eta eraikitzeko muga lerroraino dagoen eremuan, Lacervillako Administrazio Batzarrak lehendik dauden ondasunak desjabetu ahal izango ditu, inplizituzat jota erabilera publikoko adierazpena, baldin eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak trazadura aldatzeko edo bidea konpontzeko edo handitzeko obrak egiteko proiektua onetsi badu aurrez, eta proiektu hori gauzatzeko ezinbestekoa edo komenigarria bada.

12. artikulua. Sarbideak mugatzea eta berrantolatzea

1. Finkak landa bideetara sartzeko kostua finkaren jabearen kontura izango da.

2. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak mugatu egin ahal izango du Bideen Erregistroan inskribatutako landa bideetarako sarbide berriak egitea, finkak beste sarbide erabilgarri bat badu; bestalde, sarbide horien eta obra osagarrien nahitaezko ezaugarri teknikoak ezarri ahal izango ditu.

13. artikulua. Arau hauste arinak, larriak eta oso larriak

1. Artikulu honetako hurrengo ataletan adierazitako arau hausteetakoren bat egiten dutenek administrazio arloko erantzukizuna izango dute.

2. Honako hauek arau hauste arinak dira:

a) Jabari publikoko eremuan, zortasun eremuan edo eragin eremuan baimenduta ez dauden obra, instalazio edo esku hartzeak egitea, eskatutako lizentzia edo baimenik gabe, edo emandako baimenetan jasotako baldintzen bat urratzea, baldin eta gerora legeztatzeko modukoak badira.

b) Lur berdinketan edo jabari publikoko eremuan zuzaitzak landatzea edo baimendu gabeko erabilera aldaketak egitea, edo dagokion baimenik gabe edo emandako baimeneko baldintzak bete gabe egitea.

c) Informazio kartelak jartzea jabari publikoko eremuan, zortasun eremuan eta eragin eremuan, organo eskudunaren baimenik gabe.

d) Laborariak bideak eta haien eragin eremuak mantentzeko eta kontserbatzeko lanak ez egitea eta horrek kalteak eragitea, kalteen kausa gorabehera (erabilera txarragatik edo fenomeno meteorologiko kaltegarriengatik), eta, betiere, eragindako kaltea edo beharrezko konponketak hiru mila euro baino gutxiagoan balioesten badira.

3. Honako hauek arau hauste larriak dira:

a) Jabari publikoko eremuan, zortasun eremuan edo eragin eremuan baimenduta ez dauden obra, instalazio edo esku hartzeak egitea, eskatutako lizentzia edo baimenik gabe, edo emandako baimenetan jasotako baldintzen bat urratzea, baldin eta gerora legeztatzeko modukoak ez badira.

b) Zirkulazioaren antolakuntzari, orientaziori edo segurtasunari zuzenean lotutako bideko edozein elementu funtzional hondatzea, edo haren ezaugarriak edo egoera nahita aldatzea.

c) Bideko edozein instalazio edo obra edo edozein egitura elementu hondatzea, kaltetzea, aldatzea edo moldatzea.

d) Edozein motatako objektuak edo materialak jarri, bota, jaurti edo uztea areketan, lubetetan edo egituraren euskarriek okupatutako lurretan edo bidearen plataformari eragiten diotenenetan.

e) Aireko edo lurpeko gurutzaketak egitea jabari publikoko eremuan, baldin eta baimenduta ez badago, dagokion baimena eskuratu ez bada edo emandako baimenaren baldintzak bete ez badira.

f) Arekaren edo lubetaren kanpoko ertzaren eta eraikuntza lerroaren artean baimenduta ez dauden obra, instalazio edo esku hartzeak egitea, eskatu beharrezko lizentzia edo baimenik gabe, edo emandako baimenetan jasotako baldintzen bat urratzea.

g) Bideko jabari publikoko eremutik ikus daitekeen edozein publizitate mota jartzea.

h) Laborariak bideak eta haien eragin eremuak mantentzeko eta kontserbatzeko lanak ez egitea eta horrek kalteak eragitea, kalteen kausa gorabehera (erabilera txarragatik edo fenomeno meteorologiko kaltegarriengatik), eta, betiere, eragindako kaltea edo beharrezko konponketak hiru mila euro baino gehiagoan balioesten badira.

4. Honako hauek arau hauste oso larriak dira:

a) Zirkulazioaren antolakuntzari, orientaziori edo segurtasunari zuzenean lotutako bideko edozein elementu funtzional lapurtzea, kaltetzea edo hondatzea, edo horren ezaugarriak edo egoera nahita aldatzea, eta, ondorioz, kasuan kasuko elementuak dagokion funtzioa betetzen jarraitzea eragozte.

b) Bideko edozein instalazio edo obra edo horien edozein egitura elementu hondatzea, kaltetzea, aldatzea edo moldatzea, horrek galtzadan edo bazterbidean eragina izatea.

c) Eragin eremuan edozein motatako instalazioak jartzea, edo bidearen erabiltzaileentzat arriskutsua, deserosoa edo osasungaitza den jardueraren bat egitea, hori saihesteko neurri egokiak hartu gabe.

d) Bidea kaltetu edo hondatzea, baimendutako mugak gainditzen dituen pisuarekin, karga-ekin edo abiaduran zirkulatzearen ondorioz.

14. artikulua

Zehatzeko ahala Arabako Foru Aldundiak edo Lacervillako Administrazio Batzarrak baliatuko du, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, kontserbatu eta zaintzeko otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauaren bigarren kapituluko hirugarren atalean ezarritako eskumen araubidearen arabera.

Bideen Erregistroan inskribatutako landa bideetan egindako arau hausteen zehapen prozedura Foru Aldundiko organo eskudunek bideratu eta ebatziko dute, prozedura hori arautzen duten xedapenen arabera.

Beren beregi izendatutako bide zaintzaileek egiaztatzen dituzten eta salaketako agirietan nahiz bestelako agiri publikoetan legezko baldintzak betez formalizatzen diren gertaerak frogagisa erabili ahal izango dira. Administrazioek ere frogak erakutsi edo aurkeztu ahal izango dituzte euren eskubideak eta interesak defendatzeko.

15. artikulua

Kapitulu honetan jasotako arau hausteak zehatzeko aintzat hartuko dira eragindako kalteak eta galerak, eta hala badagokio, sortutako arriskua eta eragilearen asmoa, eta honako isun hauek ezarriko dira:

- Arau hauste arinak: 150,25 eta 600 euro bitarteko isuna.
- Arau hauste larriak: 600,01 eta 3.005,06 euro bitarteko isuna.
- Oso arau hauste larriak: 3.005,07 eta 15.025,30 euro bitarteko isuna.

16. artikulua. Arau hausteak iraungitzea

14. artikuluan aipatutako arau hausteak lau urteko epean iraungiko dira, arau hauste larriak edo oso larriak badira, eta bi urteko epean, arau hauste arinak badira.

17. artikulua. Kalte eta galeren ordainak

Arabako Lurralde Historikoko landa bideetan zein bertako edozein instalazio edo elementu funtzionaletan kalteak eragiten dituen orok kalte-ordaina eman beharko du; horrez gain, baliteke isunak ere ezartzea.

Landa bideetan eragindako kalte-galeren zenbatekoa zehaztea Foru Aldundiari dagokio, erregistroan inskribatutako bideak badira, eta Lacervillako Administrazio Batzarrari, inskribatu gabeko bideak badira. Zehapen espedientearen barruko izapide berezi kontraesankor batean zehaztuko da zenbatekoa.

Bideen Erregistroan inskribatutako landa bideen kasuan, espedientearen instruktoreak, lehenik eta behin, eragindako kalte-galerak ebaluatzeko eskatuko dio Foru Aldundiko organo eskudunari. Ebaluazioa egin ondoren, Lacervillako Administrazio Batzarrari helaraziko zaio, ebaluazioarekin ados dagoen adierazi dezan edo beste ebaluazio bat aurkez dezan. Azkenik, balorazioa edo balorazioak salatutakoari helaraziko zaizkio, berea egin dezan edo egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

Inskribatu gabeko bideetan, Lacervillako Administrazio Batzarrak egingo du kalte-galeren hasierako ebaluazioa, eta salatuari helaraziko zaio xede bererako.

Kalte-ordainen erabakiak eragindako kalteak eta galerak adieraziko ditu zehapen espedientea bukaraziko duen ebazpenak, hura gorabehera, eta beti egin beharko da, nahiz eta ebazpena absoluziozkoa izan, betiere administrazio erantzukizunaren salbuespenak erantzukizun zibila ez badakar.

Arau hausteen ondoriozko kalte eta galerak ordaintzeko agintzen duten erabakiak legez ezarritako epeetan betearaziko dira. Errekurtsoa jartzen bada, ez da etengo aurkaratutako egintzaren betearazpena, salbu eta, antolamendu juridikoarekin bat, organo eskudunak hala agintzen badu.

Kalte-ordaina ezarritako epearen barruan ordaintzen ez bada, Foru Aldundiak, Bideen Erregistroan inskribatutako landa bideak badira, edo Lacervillako Administrazio Batzarrak, inskribatu gabeko bideak badira, premiamendu bidez ordainaraziko ditu.

18. artikulua. Kalteak konpontzea larrialdi kasuetan

Segurtasun arrazoiak direla eta edo Foru Aldundiko organo eskudunaren ebazpenean behar bezala egiaztatutako beste edozein arrazoi dela eta kalte-galeren konponketa atzeraezina bada, kalte-galerok berehala leheneratu ahal izango dira, eta, ondoren, kalte-galeren eragileari dagokion zenbatekoa eskatu ahal izango zaio, aurreko artikuluetan aipatutako zehapen espedientea hasi ondoren edo jurisdikzio arruntera joanda.

19. artikulua

Aurreko artikuluan aurreikusitakoa gorabehera, kalteak eragin dituzten egitateak delitu edo falta izan badaitezke, erruduntasun testigantza zigor arloko jurisdikzioari emango zaio, eta eten egingo da ordaina eskatzeko administrazio espedienteen izapidetzea eta ebazpena, harik eta auzia artxibatzen den arte edo epai irmoa ematen den arte. Foru Administrazioa alderdi gisa aritu beharko da eginbide judizialean –hasiera ematen bazaie–, 28. artikuluan aipatzen den ebaluazioa aurkeztuta eskura litekeen kalte eta galeren ordaina lortzeko.

Azken xedapena

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Lacervilla, 2020ko ekainaren 22a

Lehendakaria

RUBEN SOBRÓN FERNÁNDEZ